

Baina izan ote da inoiz Marcel Schwob-ik?

Karlos del Olmo

Bizi alegiazkoak

Marcel Schwob

Itzul.: Juan Garzia

Ibaizabal

2002

Marcel Schwob (1867-1905) idazleak bere-bere egiten ditu idazlearen patuaren bi modu: haren idazlanak hainbat zalerentzat berezko argi eta erakarmen iturri izatea, bateko, eta, besteko, idazlea eta obra bera guztiz ahaztuta egotea are literatura unibertsalaren gaineko obretan eta entziklopedia askotan ere. Schwoben mundua korapilatsua da, eruditua, irudimenez josia. Ezin bestela gertatu Borges en beraren miresmena eta gurtza pizten zituen frantses horrekin. Euskaraz, zorionez, beste bi lan genituen lehendik itzulita.

Eta, ezin bestela gertatu, oraingoan Marcelek bere neurriko zapata topatu du Literatura Unibertsala bilduman: Juan Garzia. Borges en lan batzuk bilduma horretantxe euskaraz era zoragarri eta gogoeta eragilean eman zigun itzultzaile ezaguna.

Mitxelenaren esaldi bat parafraseatuta —eta apurtxo batean aldatuta—, beldurrez abiatu naiz, besteetan ez bezala, liburu honen gainean kritika berba batzuk moldatzen. Beldurrez eta, halaz guztiz, gogoz. Ez zer esanik aurkituko ez dudalako, alderantzikoagatik baino: gaiari edonondik helduta ere, laburregi jardungo dudalako. Edozeinek laburresteke bezain labur. Batetik, idazleak iruzkin luzea merezi duelako. Bestetik, itzultzailearen lanaren gainean hitz bitan aritzea lotsagarri delako, idazten ari naizen honentzat zein itzultzailearentzat berarentzat. Azkena, baina ez mendreena, Schwob itzultzaile trebea ere izan zelako. Kazetaritzan, barren, dena mugakizun da. Gainera, Juan ezaguna da kritikari eta artikulugile moduan. Eta paperezko mingaina ahokoa bezain trebe dantzaten du. Neke gaitza inon gaitzik bada. Baina aurpegia atera beharrean gaude eta goazen alorrera.

Juan Garziaren itzulpenak aztertzeak, berez, arrisku bide bi ditu. Lehenik, irakasle eta teorilari ezaguna denez gero, akatsa non topatuko hastea idoloa ere gizaki dela erakustearren. Kaikukeria hutsa, gizakia dena ondo erakutsia baitu, baina... Bigarrenik, lagun batek dioenez, Juanek hala idatzi badu, bikain dago, eta kito! Lan antzua, beraz, edonondik ere. Eta buru higieneagatik baino ez bada ere, gaintitu beharrekoa inondik inora. Itzulpena gozamen hutsa dela jakitea asko eta aski du irakurle gosetuak.

Baina Juanen lan gehienon antzera, itzulpen hau lezioa ere bada, ikaskizuna. Itzultzaile-idazle horren estilo kezken agerpena. Bururako bazka. Liburuak balio bikuna du, beraz. Eta zer edo zer nabarmenezkotan, horixe, lehenengo lerrotik igarri-igarria dela Juanen eskua, haren ukitua, usaina eta zaporea. Ez du idazlea estaltzen, zintzo ordaintzen duelako jatorrizkoa, Schwoben ahotsa helarazten digu, garbiro. Halere, Juanen estiloa ezagutzen duenak etengabe nabarrituko du hor dagoela, Marcelen euskal enbaxadore gisa.

Zer ematen digu Schwobek *Bizi alegiazkoak* honetan? Benetakoa den historia bakarra: historia asmatua. Hainbat pertsonen eta pertsonaiaren biografia asmatuak. Zoragarriak, egiazkoak baino sinesgarriagoak; asmazioak, liburu honetan, errealitatearen akatsak

garbitzen dituelako, zinetako jazoerak baino gertaera irensten errazagoak emendatzen dizkielako halakoei.

Schwobek batera itzulpengintzaren handia eta miseria barneratzen dituen autua erabili zuen berabagai: itzulpenean forma eta edukia biak biotara eta beren hartan eman ezina. Schwob linguista aditua zen eta, hori dela eta, beste kezka gai bat erabili zuen, itzultzaileak unean-unean izaten duen erabaki beharra: zelan erakarri beste hizkuntza batera, bestelako garaira, harako hizkuntza hartako aspaldiko testua? Zer erabili, gaur egungo hizkuntza eredu ala jatorrizkoa idatzitako garaiko ereduaren imitazioa? Auzia ez da oraindik ebatzi. Juan Garziak oso proposamen interesgarria egiten du sesio hori garbitzen laguntzeko.

Baina benetan izan al zen Marcel Schwobik ala hainbat idazleren pertsonaia asmatua baino ez? Bai, Borgesek miresten zuen (eta horrek fikzio puntu bat eransten dio). Renard, Claudel, Colette, Jammes, Valery, Goncourt, Wilde, Stevenson eta enparauak gutun bidez egon ei ziren harekin harremanetan. Halere, halere... ez ote da izango hura ere liburuko bizidun alegiazko horietarik bat?

Mitoetatik edan zuen oparo. Baita errabinoen ondarea lepoan hartu ere. Shakespeare eta Stevenson bidaide eta gogaide izan zitzaizkion paperezko ibilgu literarioan. Behinola esan omen zuenez, burgesek —bera ere halakoxea zen— emandako ospeak handitutako itzala baino, guragoa zuen lurreko kondenatu alproja guztiei zien maitasuna. Gaixotasunak nahita inposaturiko patua izan zuen ordain, baina, heroien antzera, azken hatsa eman arte lehiatu zen. Apollinairek esan zuenez, "arrakasta lortu ostean, izurri bubonikoari barre egitea eta trikilika urre antzeko fruituetan abiatzea baino ez da geratzen". Edo Juanen berben bitartez Marcelek dioskunez, biografiaren eremuan saiatzekotan, ez litzateke halakoren ezaugarriak zehatz-mehatz deskribatu behar, "baizik eta ardura beraz kontatu gizonen bizialdi berdinek gabeak; jainkozkoak, erdipurdikoak zein kriminalak izan gizonak".

